

## TRADIZIOA, IDAZLEAREN KALE KANTOITIK

*Durango, 1996-XII-07*

*Anjel Lertxundi,  
euskaltzain urgazlea eta idazlea*

### 1

Hitzek, esapideek eta esaerek gutariko bakoitzak bizi izandakoa, oroimena, ahots joanen oihartzuna gordetzen dituzte beren altzoan: gure unibertso pertsonala izendatzen, deskribatzen eta kontatzen dute batetik eta, bestetik, unibertso kolektiboa, hizkuntza jakin bateko hiztun guztiek metatu duten jakituria eta jakinmina osatzen dute.

Katea luze baten katanbegia da idazlea, eta, adanismoaren tentaldia gainditurik, unibertso kolektiboak eraikitako tradizio literario zabala du bere inspirazio-iturri eta lan-eremu. Borges-ek honela deskribatzen zuen katea bere poema ezagun batean:

...zu zeu zara zure garaira heldu ez zirenen  
jarraipen eraginkorra,  
eta beste batzuk izango dira (eta dira)  
mundu honetan hilezkor egingo zaituztenak.

Zer funtzio betetzen du, ordea, tradizio horrek idazle baten eginkizunean? Edo, beste modu batez galdeturik, zer egin dezake idazle batek tradizioarekin?

Tradizioa ez da fosil baten antzeko trepeta zaharkitu bat. Hizkuntza dinamikoa da, eta dinamika horrek eman dituen fruituen multzoa da tradizio literarioa: ahoz nahiz idatziz, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den eta denboraren poderioan finkatzen den literatur ondarea. Erlatiboa eta kapitxosoa izan ohi da, ordea, ondare horren hainbat emaitzen iraupena: nire belaunaldiko idazleek modaren atzaparretan ikusi ditugu jaiotzen eta moda beraren atzaparretan desagertzen *laket, kausi, taferna, populu, pairatu, domeinatu, paia* eta antzeko hitzak; aski da, bestalde, hiltzat daukagun hainbat hitz, esaera, esapide edo poema baten halako ahapaldi bat garrantzizko testu moderno batean txertatzea, zaharkituzat geneukan horri bizitza berria emateko. Hitz eta esapide asko dago hiztegien bidegurutzeetan guk noiz jaramon egingo. Batzuk hil egingo dira betiko, eta beste batzuek uste genuen baino bizitza gehiago zutela demostratuko digute gutxien espero dugunean: demagun, kasu, sehaska-kantu xumeetako ha-

sierako hitzek eragin duten Obaba lur literario emankorra; *Zazpi urtez etxiki dizut senar hila kanberan* balada ezaguna baliatu zuen Mirandek *Eresi Kantari* ipuinean, hamazazpigarren mendeko gertakizun batzuk hogeigarrenera ekartzeko. Xalbadorrek Laphitzen esamolde bat, *Odolaren mintzoa*, erabili zuen bere oroitzapen-liburuko izenburu. Nik dakidala, Lizardi baino lehen ez zen *bihotz-begiak* esapidea erabili; bai, ordea, *bihotz belarriak*. Klitxe ezagun baten arragoan betikoa dirudien esapide berri bat osatu zuen Lizardik bere jario estetikoaren iturriak laburbiltzeko: *Biotz begietan*, bada. Garaitsukoak dira *bihotz-ezpainetan*, *bihotz-arimetan*, *bihotz-ahotan*, *bihotz-zainetan*... espresioak ere. Lizardiren *Biotz-begietan* horren ispiluan sortua da Orixeren *Barne-muinetan* ere. Orixek berak aitortzen du zorra liburuaren eskaintzan:

— Nori dioket opa  
 nik *Barne-muinetan*?  
 — Hiri, hik oroi baitidak  
*Bihotz-begietan*.

Orixek Lizardiri egiten dion gorazarrea ikusiko zenuten guztiek hor. Bada, ordea, besterik ere: omenaldiaz gainera, Orixek garbi utzi nahi du bien poetiken desberdintasuna: baten poesiak *bihotz begietan* du iturri, bestearenak *barne-muinetan*, izpiritua irudikatzen duen toki definigaitz batean. Joan-etorrien bidaia etengabea da, bai, literatura.

Esperientzia bizi-bizia da obra literario oro, lehenaren oraina gauzatzen baitu, eta oraina etorkizunerako prestatzen. Tradizioa da, bestalde, idazle batek aurki dezakeen askatasun-eremurik bikainena: imitatu egin dezake, hautsi egin dezake, sortu egin dezake, eta hori guztia zilegi bazaio, tradizioari zor dio.

## 2

Nire belaunaldiaren haurtzaroan, etxeetan egiten zen euskararen eta tradizioaren transmisioa, eta transmisio horrek ahozkitasuna zuen eusgarri. Liburuekin zerikusirik duten lehendabiziko oroitzapenen artean, berriz, txokolate-tabletetan bildurik zetozen ipuin liliputiense batzuk ditut gogoangarrienak: izenburu arrotzak dituzte niretzat, baina berehala egingo zaizkit familiarrak: Cenicienta, Caperucita Roja, Ali Babá, Pulgarcito, La casita de chocolate... Irakurtzen dudana gaztelaniaz dator, liburuxketako hizkuntzak letra idatziaren eusgarri lustreduna du, eta, gainera, txokolate usainaren *plus*-a dakar. Lustrea eta prestijioa liburuetan dago, txokolate usaineko liburuki haietan zein eskolakotan. Liburuetako hizkuntza hura entzuten dut etxeko irrati handian ere... Bat dira liburuaren lilura eta gaztelaniarena.

Entzuten ditudan ipuinak, berriz, euskaraz kontatzen dizkidate, eta bada garai hartako ipuin bat gure amonari entzunda ikasi nuena. Zorri baten larruz egindako danborra baten ixtorioa zuen ipuinak kontagai, eta nik ezin nuen uler-

tu nola egin zitekeen danborrik zorri txiki baten larruaz. Artean ez nuen eza-gutzen, jakina, ez fantasiaren teoriarik, ez Gianni Rodariren binomio fantastikorik. Handik hamabost bat urtetara edo, amonari entzuten nion ipuin huraxe aurkitu nuen Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*-n. *Errege-zorria* du titulua, eta, Azkuek dioenez, Baztango Elbeteako gizon baten ahotik jaso zuen. Azkuerenak ez du alde handirik nik txikitan entzundako ipuinarekin:

*Erregina batek alaba ttipitto bat zuen, eta bein batez orraztatzen ari zelarik, zorri bat harrapatu zion. Zorri hura hil beharrean, nonbait gorde eta hazi behar zela erabaki zuten, zenbat handitzen zen ikusteko. Eta hala, egunak joan eta egunak etorri, zorria bargosta bat bezalakotsukoa egin zen. Baina zahartu ere egin zen, eta gero hil. Atsekabe handia hartu zuten horretaz erreginak eta alabak. Eta zorriaz zerbait oroitzapen egin behar zutela eta, larrua kenduz, danbore bat egin zuten. Gogoak ematen zielarik, danborea jotzen omen zuten, eta zorriaz oroitu.*

Azkuerenean ere aurkitu izanak liluratu egin ninduen, orduan ikusi bainuen lehendabiziko aldiz eta praktikan nire amonaren ipuinekin ere bazutela liburuaren lustrerik. Pozik nengoen: literatur-lilura ez zegoen, bada, txokolate usaineko liburuki erdaldun haietan bakarrik.

Ipuina berridatzi nuen, forma berri bat eman nion, orijinalak (amonari goratzen nionak, nahiz Azkuerenak) ez zeukan umore pittin bat ere erantsi nahi izan nion, eta ipuin bilduma batean, *Gizon kabalen piurak* izenekoan, argitaratu nuen.

Aurkikuntza berri batek sendotu egin zuen, gainera, ahozkoztatunaren eta idatziaren arteko lotura hura, behin, paper zaharren begirantzan, Iparraldeko egitura erritmiko honekin egin bainuen topo:

Halako gisaz, halako gisaz!  
ez dakit zerk eman zidan gogora  
eskua sartzeko kolkora,  
handik atera nuen zorri handi bat,  
hartaz egin nuen ehun kantaretako zahagi bat.  
Gezurra ez badiat, egia diat.

Handik urte batzuetara, ordea, Daudet-en *Tartarin de Tarascon* gazteleraz irakurtzen ari nintzela, esaldi labur honekin egin nuen topo: *resonaba su viejo tambor de piel de pulga*. Garai beretsuan, berriz, *Zorri-larrua ezagutu zuen deabrua* izeneko ipuin bat irakurri nuen Alemaniako ipuin-bilduma batean. Antza pixka bat bazuen, ez gehiegi, nire amonak kontaktutakoarekin, eta bi aurkikuntzok bat-batean hondatu zidaten *Errege-zorriaz* nuen orijinaltasun-ustea, altxor literario amankomuneko gai baten aurrean bainengoen. Oraintsu bi urte edo, XVII.en mendeko Gianbattista Basile idazlearen *Lo cunto de li cunti* irakurtzen ari nintzela, *La pulce* (Zorria) ipuina irakurri nuen. Amonak kontatzen zidan eta Azkuerenean dagoen ia ipuin berbera da. Nire amonaren ipuinak eta txokolate tabletetakoak familia berekoak dira.

Museum poeta greziarraren Hero eta Leandro poema gogoratzen zion Humboldt-i Izaro uhartean kokaturiko maitasun-istorio batek. *Don Pacheco eta doña Incarnación* irri-ipuin bat txertatu zuen Jean Baptiste Elizanburuk bere *Piarres Adame* nobelan: Molière-ren *Le medecin malgré lui* komediaren aldaera bat da. Webster-ek iparraldean bilduriko ipuin ugarien artean bada bat, *Mustroa*, Apuleioren *Eros eta Psike* narrazio famatuaren bertsio laburtua.

### 3

Ahozko tradizioan ere elementu ustez desberdinak (edo orain desberdintzat dauzkagunak) elkarren artean loturik ikusten ditugu sarri: haurren egitura askok zer-ikusi zuzena du, esate baterako, astolasterretako irain-bertsoekin: haurrek helduen egiturak bereganatu dituztela dirudi. *Dindan balendan* gisako egituratan, Peru zapatariak zer egin ote duen galdetzen denean, *emaztea urkatu!* erantzuten da, eta *hori ez da bekatu!* erantzuten jarraian. Haurrak *Errak to!* bezalako astolasterretako egiturak bereganatu ditu, eta jolas bihurtu.

Erdi Aroan oso baliatua izan zen Herioren sega berdintzaileak atzo hura, gaur hori, bihar ni eramango gaituela, eta pertsona-mailen enumeraketaz osaturiko klitxea. Etxeparek:

Non dirate egun hartan hemengo jaun erregiak  
noble, konde, markes, zaldun eta bertze jaun nobliak...  
eta haien armadako gizon sendoen balentziak?  
Ordu hartan baliako gutxi haien potentziak.

Topiko horixe bera biltzen du testu idatziren batetik aterea dirudien gure folkloreko egitura batek:

Ez du ez pobrerik, ez aitunen semerik,  
ez du ez haurrik, ez agurerik,  
ez du ez arik, ez emerik,  
Herioak berezten.

Herioari buruzko topiko horren sega itzaltsua hizkuntza guztietara heldu da, literaturaren bazter guztietara iritsi, ideia bera ageri baita, esate baterako, haur tipitaki batean ere:

Tipitaki, tapataki, zer ote den nork daki: Errege eta noble, zaldun eta bilaun, xinurri eta lehoi, denak garaitzen ditu.

Har dezagun, bestalde, *Odolkiak ordainetan* esaldia. Esaera askok bezala, badiu aldaera gehiago ere. Hiru ekarriko ditut hona. Interes handikoak dira, elkarren arteko hurbil-urrundu dinamikoa idarokitzen baitute:

- Txerri-muinak ordainetan.
- Txerrimoniak ordainetan.

— Zeremoniak ordainetan.

Txerri-muinak, txerrimoniak zeremoniak... Nondik nora egin du bidea le-  
rraketa semantikoak?

Azken urteotan entzute polita lortu dute *Today-ko neskatilak* izeneko ber-  
tsoek, hainbat tokitan argitaratuak izan baitira. *Idatz & Mintz* aldizkariak ha-  
malau bertso horien faksimila argitaratu zuen 1984.ean:

Today-ko neskatilak  
janzten dira pretty,  
powder ipini eta  
enseguida all ready  
side-walkien pasatzen den  
people guztiari  
begia ginatu eta  
come on right, in honey.

Bertsook, izatez, 1932. urtekoak dira, “Boise, Idaho-n, Euzkaldun batek  
jarriak”. Euskaldun hori Simon Gandarias elantxobearra zen, eta bertso paperak  
© moduko ohar bat dakar: “proibitua, nere berri gabe berriro bertso hauek in-  
prentatzea”.

Ohargarria da *Today-ko neskatilak* horrek Euskal Herri osoan hedaturiko  
trikitietako *Oraingo neskatilak* klitxe ezaguna duela oinarri.

Konpara ditzagun *Today-ko neskatilak* eta *Oraingo neskatilak* saileko edo-  
zein irri-kopla Arnaud Haranburuk iragan mendearen erdi aldera argitaratu  
zuen bertso-sail bateko ahapaldi batekin:

Les coquetes de ce your modak segitzeko,  
vendraient leur pauvre mère ongi apaintzeko,  
ceci est fort surprenant, gaitz da sinesteko  
entrons dans les détails honen frogatzeko.

#### 4

Ahokotasunaren altzoan jaioa da idazle batek esku artean darabilen esa-  
pideen eta abarren mundua, eta han izan zuen bere lehendabiziko habia, eta  
han aurkitzen du gerora ere abaro.

Aztertzeke dago ahokotasunak gure idazle klasikoengan duen eragina, eta  
Villasantek Axularri buruz egindako ahalegina izango da, seguru asko, sal-  
buespenik markagarriena. Gure autoreengan ere, batzuetan aise eta bestean  
nekez, jarrai daitezke ahokotasunaren urratsak eta urrats horien nondik-no-  
rakoak. Laphitzen eta Xalbadarren *Odolaren mintzoa* eta Lizardiren *Bihotz-  
begietan* aipatu ditut hasieran. Beste adibide batzuk ekarri nahi ditut orain  
hona:

Etxepareren poema-liburuaren garaiko euskarazko eztei-agiri batek (1552), Mari Migel eta Diego direlako batzuen ezkontza klandestinoaren berri ematen digu:

— Nik Diego de Zufia ematen dizut neure fedea zuri Maria Migel ez bertze emazterik egiteko.

— Halaber, nik Mari Migel, ematen dizut zuri Diego neure fedea ene seartzat eta ez bertze senarrik egitekotz zu baizik.

Egunak joan egunak etorri, Mari Migelek tribunaleetara eraman zuen bere senarra, hark ezkonlegerik kunplitzen ez zuelako. Horretarako, ordea, ezkontza klandestinoaren berri eman behar izan zuten Mari Migelek eta eztei-eguneko lekukoek. Hona haietako batek, Martin de Carlos-ek, emandako lekukotza:

“Dice que le dijo el dicho Diego de Zufia que había dicho a la dicha María cuando le pidió que le diese su fe, *yo te doy mi fe si te cabalgo*, lo cual lo dijo en bascuence por estas palabras:

”— Nik ematen dizut neure fedea baldin baldin *jo baneza* haren senar izateko”.

Hitz horiek entzunda, nor ez da gogoratzen Etxepareren bertso famatuaz?:

Io badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,  
ainguriak baino oboro ez lerrake gaizkirik.

*Ezin hilez bizirik* ageri da Etxepareren beraren bertso batean, *ezin hilez bizi da Ote da mundu huntan* baladako judu erratua ere.

Axularrek, beste alde, *ijitoen kondea* deitzen zion ukimenari: “Zeren hura da ohoinen kapitaina: ijitoen kondea, besteen ebatzietan ere parte duena”. Axularren *Gerok* baino ehun urte gehiago dituen agiri zahar batean ere, Sunbilan izandako lapurreta batez ari delarik, *Uztaritz* gaitzizeneko ijito lapur baten aitormena jasotzen da:

“...deciendo en bascuenze, *bai egiazki jan ginduzen hiru ardiak eta urdea...*”.

Agiri berean hainbat aldiz deitzen zaio *conde* Uztaritz ijitoari: y luego el dicho *conde* dixo que era verdad (...) confesó el dicho *conde* estas palabras, *Arraiotzetik behin zamari bat jan genuen (...) bai, hiru lagun ginen*, y esto dixo el *conde* (...) y el dicho *conde* respondió *bai, guk ezeze, bertze ijitorik ere baduk Baztanen...*

Astolasterretakoak dira, berriz, Axularren beste esaldi famatu bateko iturria eta giroa: “Amorantea zen nagusi: no zen to: emaztea gizon, oiloa oilar”. Honela dio *Errak, to!* saileko astolasterretako elkarrizketa errimatu batek:

- Errak, to.
- Zer duk, to.
- Badakika berri?

- Zer berri?
- Gurdoenean oiloa nagusitu zaiola oilarrari.
- Zer ari dituk? Oilarra erruten?
- Ez oraino, baina oiloa kukurruku egiten.
- Josepe dea oilotu?
- Ba, eta Margarita oilartu.
- Berri horren ohoretan,  
jo adarra errepikan,  
klin! klan!

## 5

Gurean aranismoari egotzi izan zaio ahozko tradizioarekiko arbuioa. Jarraera hori, ordea, askoz ere zahartagoa da. Aranismoak baino ehun urte gehiago ditu gutxienez.

Anjel Zelaietak Peru eta Marixe ipuinen aurkako hiru testigantza interesgarri bildu zituen Juan Mateo Zabalaren *Fábulas en dialecto vizcaíno* liburua-ren hitzaurrean.

“Badago puntu bat, dio Zelaietak, Mogel zaharrarengandik atera, eta bai Bizentak eta bai Zabalak onartzen dutena. Ilustrazioaren usteei loturik, jende ikasiak badaukala zerbait gehiagorik, herri xeheak baino”.

*Peru Abarkak* bere semeaz dioena gogorarazten digu gero Zelaietak:

“Seme bata eskolatua da, liburu zalea; badaki erdara, eta euskaratzen dizkigu, gaua igaroteko, irakurri dituen ipuinak, baina ipuin onak, garbi eta inoren kalte gabekoak. Egoten gatzazkio ahoak zabalik entzuten, ume txikarrek Peru eta Marixaren *ipuin gatz gabeak* entzuten dituzten garras. Lehengo egun batean berak buruz ikasita, esan zigun ipuin txit eder bat abade batek ipini zuena berba neurtu eta soinutuaz”.

Handik urte batzuetara, Bizenta Moglek ia hitzez-hitz eman zuen osabaren iritzi bera:

“Umeago nintzenean, berriz, entzun ohi nituen, zoro-zororik, eta pozez erotuta, atso ipuinak. Sinisten nituen egia handi batzuk bezala, *Peru eta Mariaren* ipuin barregarri eta *sustrai gabeak*”.

Gauza berbera dio, garai beretsuetan, Juan Mateo Zabalak ere:

“Gogoan dut oraindik zelan umetan entzuten genituen, ahoa zabalik, eta adurra zerigula, Peru eta Mariaren ipuin *sustrai gabeak*. Oraingo hauek dira sustrai handikoak, mami ederrekoak, eta on eta onura zabalekoak”.

Moglek, bada, Peru Abarkaren bidez, Peru eta Marixeren herri-ipuuingintza arbuizatzen du, eta *ipuin gatz-gabeak* direla esaten. Ordainetan, fabula sa-

siklasiko bat (*ipuin txit ederra*) kontaktzen jartzen du bere seme Txomintxo. Zer gertatu da? Peru Abarka osatzen ari den irudi naturalista hori ere *asmatur* dela, *sortur*, ideologia baten arabera *osatur*, eta hor ez dira Peru eta Marixe xaloak kabitzen: baserritar eskolatugabe horiek ez dute hitzen balio metaforikoa, ironikoa, polisemikoa ezagutzen, eta, batez ere, ez dute *letraren lustrerik*. Hizkuntzaren ikuspegi aurre-kontzeptuala dute.

Baina kritika ez da ohartu oraindik Peru Abarkaren emazteak ere Marixe izena duela (eta ez dut uste kasualitatea denik: Peru eta Marixe *Peru Abarkako* senar-emazte!).

Herri ipuinetako matrimonio axolakabe, arlote, zurruteroak ez duen sendotasun ideologikoa eman nahi dio Mogelek Basarteko bikoteari, Basarteko Peru eta Marixek osatzen duten bikote berria *eredu* izan dadin. Herri ipuinetako pertsonaia *gatz-gabe* berak dira Mogelek hautatu dituenak ere, baina, ideologiaren galbahean iragazirik, lustre berriz duindu ditu: galbaheketan *osatu nahi litzatekeen gizon euskaldunak* baztertu beharreko osagarriak kendu dira (alferkeria, zurruta, liskarra, hizkera narratsa...) eta berriak erantsi (fedea, oreka, bizitza bertutetsua, euskara garbia...). Ezjakinetik ikasira dagoen bidea eginak dira Mogelen pertsonaiak.

Mogelek *hil* egin behar zituen herri ipuinetako Peru eta Marixe, eta berriak sortu. Ni nago Mogel baliatu egin dela, Cervantes zaldun-nobelez bezala, herri-ipuinetako pertsonaia arloteen esistentziaz, bere neurriko euskalduna osatzeko. Mogelen Peru eta Marixek ez daukate deus herri literaturako Peru eta Marixerenetik. Hizkera bera ere desberdina dute, eta Peru zurruteroak nekez ulertuko lioke Basarteko Peru katedratikoari darabilen erretolika...

## 6

Oroimena nork bere neurrira josten duen kapa izaki, begira dezadan berriro neure haurtzarora. Oso garbi ikus dezaket euskaraz bakarrik dakien haur hura. Mundu oso-osoa du eszenategi. Garden daukat gaztelania ikasi berri duen haurraren isla ere. Bi eszenategi ditu, hizkuntzen arabera markatuak: ordu arteko mundu bera —etxea, lagunak, herria— eta letraren bidez manifestatzen zaion mundu exotikoa —eskola, liburuak, zinea—. Orain eszenategi bakar bat eta gero bi, ez daukat koszientziarik haur hark bizi izandako aldaketaz, aldaketaren prozeduraz eta prozeduraren denboraz. *Río* eta *ría* berezten dituzte don Antonio maisuak eta naturak, haurrak ordurarte *erriyua* ikusten zuen tokian. Bi hitzak, *río* eta *ría*, idatziko ditu don Antoniok pizarran. Haurraren *erriyuak* ez dauka pizarririk.

Osaba-izebak ditut Azkoitian, eta Oriotik Azkoitiara joan nintzen behin oporrak pasatzera. Bazkaltzen ari ginela, izebak postre garaian: —Anjel, txermenik nahi? Nik, ezetz. Gero, nire lehengusuak-eta postrea jaten ikusi nitueanean, gogoratu nintzen, asko gustatzen zaizkidala udareak.



Hamaika urte bete berri, etxetik irten, eta Seminariora noa. Joseba izeneko mutil bat ezagutuko dut hara iritsi helduko. Aurkezpenak egin ditugu gaztelaniaz. —Me llamo Angel. —Yo, Joseba. —¿Joseba? ¿Qué nombre es ése? —José, en vasco. —¿José, en vasco? Pero ¿José no es, pues, Jose en vasco?. Gogoratzen dudan nire lehen galdera esplizittoa da eszenategiez. Euskararen eszenategia menostua eta hautsez betea dago ordurako. Gaztelaniak dauka kulturaren lustre osoa. Familia eta lagunak nituen euskararen erreferentzia. Orain, ordea, gaztelaniaz mintzatzen naiz lagun berriekin. Etxean ere ama irudika dezaket nik bidaltzen dizkiodan gutunak irakurritz. *Querida madre*.

Hona oroitzapenok hemen gogoratu izanaren arrazoiak: bi hizkuntzen eszenategiak desberdinak dira, eta hizkuntza bakoitzak ere eszenategi ugariak ditu. Gorabehera amankomun asko dituzte elkarren artean, dudarik ez dago horretaz, baina eszenategi bakoitzak bere logika propioa du, bere amaraun propioa josten du.

## 7

Lizardik *Barne-muinetan* argitaratu zuenean, eten handia eragin zuen euskal poetikan. Bai hizkerak eta baita gai lirikoak garatzeko manera poetikoak ere ez dute zerikusirik aurreko poesiarekin. Etendura baino gehiago, amildegia egon zitekeen obraren eta irakurlearen artean. Baina, paradoxikoa badirudi ere, ni nago orduko irakurleak arazo handiagoak izan zituela hizkerarekin, Lizardiren poesiak ekarri zuen talaia-aldaketarekin baino.

Zein da, funtsean, Lizardiren orijinaltasuna? Lizardik guztiz desberdin diren bi gora-behera, europarra eta euskalduna, uztartu nahi zituen. Orixek bezala. Baina Lizardik tradizio europar garaikidea ekarri nahi izan zuen, eta tradizio horrek konotazio jakinak ditu (abangoardia, profanoa, begiak eta bihotzaren uztarketa, halako plastikotasun sentibera transmititu nahia...).

Orixek edaten duen tradizioa, berriz, ez da garaikidea. Atzera begiratzen du, eta, poesia mistikoaren tradizioarekin bat eginik, hango gaien alderdi intelektualenak ekartzen ditu, eta sentzualenak baztertzen. Orixeren garaian poesia katolikoak garrantzi eta ospe handia zuen, gogoratu besterik ez dago Paul Claudel-en *L'annonce faite à Marie* entzutetsua, eta poesia mistikoa sinbolismoaren hainbat alderdirekin uztartu zuena. Orixeren heziketa literarioa, ordea, oso bestelakoa zen, eta klasikotasunaren zentzu estatiko eternala zuen. Horregatik jo zuen, poesia mistiko garaikidearekin konprometitu ordez, San Juan de La Cruz-en balore seguruetera.

Lizardik zein Orixek euskaraz ez dauden bi poesia-mota garatzen dituzte. Eta darabilten hizkera literarioa? Lizardik baino errazago zeukan Orixek: San Juan de La Cruz-ek poesia herrikoira jo zuen, eta Orixek ere gertu zeukan gure kantutegi, balada, marijesien mundua batetik, eta eliz-giroko poesia eta kantutegiaren tradizio zabala bestetik.

Lizardik antolatu nahi duen poesiak ez dauka gertuan eredu poetikorik, baina zarauztarra ez da hutsetik hasten, askok pentsatu izan duen bezala. Espainiako poeta garaikideek hamazazpigarren mendera, barrokora, jo zuten bezalatsu egin zuen Lizardik ere, eta Oihenarteren hainbat ekarri poetiko bereganatu zuen: aditz trinkoa, hiperbatona, metro laburrak...

Labur adierazteko: idazle guztiok jotzen dugu, bakoitzak bere ezagupideen neurrian eta apeten arabera, tradizioa, baina tradizioaz egiten dugun hautamenak berezten gaitu, anitza baita tradizioa.

Idazle batzuk motz geratzen dira ahaleginean. Badakizue Lizardirengatik esaten dena: Lizardi, mon petit poète: Rimbaud etorri duk hitaz galdezka...

Hitz horiek adierazten ez dituzten beste kezka batzuk bizi zituen, ordea, Lizardik:

“Guk badakigu idazle errazak, olerkari errazak, gure aldean *publico* handia dutena; gure bakartasunean otzan-otzan etsitzen dugun ezker, zer dela eta zuek guri harrika?”. Eta aurreraxeago: “Baina elerti-gaietan ez da biderik zuzenena, norbere zale eta joeratik aterata ibilaraztea”.

Gordin esan beharra dago: ezin dira erritmo, neurri eta arnasa guztiz desberdinetako bi tradizio parez pare jarri. Talaiaren arazoa da.

Lizardiren kasuan, gainera, idazle bati estimatzen zaion gora-behera garrantzitsu bat dago, eta guztiz nirea egiten dudana, bai hizkera poetikoari dagokionez, baita materia poetikoari berari dagokionez ere: tentsioa. Idazlearen gogoak *aitzina, beti aitzina!* egin nahi luke, baina esku artean daukadan baliapide poetiko landu gabeen errealitateak ukalondotik oratzen dit, esanez bezala: hi, amigo, ez al hoa urrutiegi?

Pozik nengoke tentsio horixe nabarmenduko balitzaie gure literatur lanei: tentsioa hizkerarekin, tentsioa kontagaiarekin, idazleok tradizio zabal baten, tradizio horri eman nahi geniokeen etorkizunaren eta irakurleen artean soka batez marraturiko triangeluaren ertzak bat egin nahirik gabiltzan txerpolari baikara bokazioz.

## 8

Idazten hasi nintzenean, haritz, lizar eta pagoez beterik zegoen nire literatura. Lizardiren sagasti berri, sagasti zuriek halako ukitu piktoriko bat eskaintzen zioten euskal baso klasikoari. Mikel Lasak, berriz, bere haurtzaroko tamariza eta pikondoak desagertu direla oharturik, *gure denbora hunen desolamendua!* kantatzen zidan. Gabriel Arestiren *Maldan beheraren* ondorengo paisaia urbanoan ez neukan arbolarik. Deskrubritzeke (entitate poetikorik gabe, alegia) zeuden (eta daude) artelatzak, olibondoak, mahastiak, kainaberadiak...

Horrelakoxeak dira idazleok literaturaren zelaian dauzkagun aukerak: daukagunaren inguru-mariko glosa egitea, falta zaigunari arnasa ematea, edo, erre-

ferentzia multzo izugarri hori itogarrizat harturik, hortik ihes egin, eta euskal basoari su ematea. Ez dago besterik. Oso sinplea dirudi, baina zelai labur horretan dauzka idazle batek bere aukera guztiak.

Horixe da nire eremua ere: ez dut haritzez eta pagoez hitz egin nahi, zinez estimatzen dut Lizardiren sagastiek ekarri zuten aldaketa imaginarioa, tamarizen faltak adierazten duen hartzaro galduak bizi nau zuetariko asko bezala, eta ez daukat basoari su emateko bokaziorik. Nire poetikaren ardatz bihurtu ordez, erabili egiten dut basoa: ekintzen eszenategi soila da batzuetan, gertakizunen mezulari edo iragarle da bestetuetan, deskribapenei kolorea emateko elementua gehienetan... Eta izena jenerikoa du beti arbolen multzoak: basoa. Basoko argi xehetuak erakartzen nau. Adar artetik iragazten den lanbroak. Orbelaren hots hezeak... Horrekin guztiarekin akzio jakin baten giroketa lortu nahi nuke. Tradizioa neureganatzeko manera da.

Hizkera narratzaileari buruz, berriz, zer esan? Egiteko asko daukat. Ez ditut Tartas, Joanategi eta beste hainbat behar bezala ezagutzen. Seguru nago Tartasereanean aurkituko dudala esaldi bat baino gehiagoren antolamendu berririk. Egingo huke Joanategik badituela interesatzen zaizkidan parrafo-hastapen interesgari bat baino gehiago. Orain arte ez nuen, aitor dut, Duvoisin-en *Baigorriko zazpi liliak* ezagutzen. Egun hauetan irakurri ahal izan dut folio solteetan, eta parrafo ordenamenduari buruzko hainbat ohar jaso dut. Horretaz gainera, orain badakit hartzak nola galdu zuen buztana, badakit animaliek noiz galdu zuten hizketerako dohaina. Badakit azeriari ezagutzen nizkion hainbat izenez gainera (Luki, Luki Barrabasa, Axarko...) Iparraldeko tradizioan Borjatto ere deitzen ziotela. Eta orain ezagutu egiten dut, halaber, *Xerezaderengandik* edo Bocaccio-ren *Decameron*-etik datorkigun aitzakia baten inguruko ipuin bilketaren euskal testigantza bat gehiago: zazpi ahizpa ederrek ipuin bana kontatu beharko dute Baigorriko herriko jaunaren dotea nork jasoko...

## 9

Literaturak artifizioa du oro. Baita herrikoitasunaren sustrai herrikoenetan jasotako totem literario herrikoienak berak ere. Txiritak, gai serio bat kantatzen duenean, halako goi-sena batez janzten ditu bertsoak, garaiko hitz kultoak-eta bertsoetan tartekatuz. Gaurko bertsolari gazteak errejistro herrikoien bila ibiltzen dira, eta badakite hainbat girotan Txiritra bera baino askoz ere jatorrago izaten. Ilustreen kongresu batean, berriz, berehala adieraziko dizute, halaber, berak ere ikasiak, eta filologoak, eta ilustreak direla.

Eta herrikoitasunaren altxor eta gordailu izan nahi zuen *Euskaldunak* poeman Orixek honelako perlak sartzen dizkigu etengabe: "Tximist-ostotsez, erakus, Jauna, gure Sinai-mendi hontan, bakar zerala Jainko". Aurreraxeago: "Bebil, inguru, lur biribilla gaiztoz ta gaitzez naasirik. Gurutz-oineko Bildots-alboan zora bage egon nai dut nik, eguna sortzen den aldera".

## 10

Lapurdiko *Aitak eman daut dotea* kantu jostaria baliatu nuen *Otto Pette* nobelan Jonaneren eta Errondalen izua azpimarratzeko. Errondalek azpilik aurkitzen ez dion xalotasun batez hasi da Jonane kantari:

Aitak eman dit dotea  
neurea, neurea:  
Urdeño bat bere umekin,  
oilo koloka bere txitoeekin,  
tipula gorda guzti haiekin.

“Jonanek maiz kantatzen zuen —jarraitzen du testuak— haurretako jolas hura. Haur taldeko bik beren eskuez zubi baten moduko arkuak osatzen zuten, gainerantzekoak, makurturik, arkupetik pasa zitezten; arkuak osatzen zutenek bakarrik ezagutzen zuten kantuko hitz seinalaturen bat esan arte ibiltzen ginen haurretan, harik eta hitz seinalatuarekin batera arkupean egokitua preso gelditzen zen arte, arkuak osatzen zutenen beso artean.

»O-tso-o-oak jan daut urdea,  
neurea, neurea...

»*Otsoa* hitz ezkutua esan orduko, Jonanek bi besoak bizkar gainetik pasatu, eta preso hartu ninduen. Musu eman zidan ezpainetan.

»Nik, musuari erantzun ordez, Jonane ikusi nuen zure borreroen atzapurretan...”

Izuaren atari gisa erabili nuen nik, bada, Leon Barbier-ek Azkueri festagiroko kantu moduan eman ziona, gauza jakina baita egunerokotasunaren erraietan bazkatzen dela izua:

Otsoak jan daut urdea,  
neurea, neurea, azeriak oilo koroka,  
arratoin batek tipula korda,  
adios, neure dotea!  
adios, neure dotea!

## 11

Tradizio jakin bat tradizio jakin batetik. Ez dugu gure tradizioarekiko axolarik izan, eta, gainera, ia hizkuntzurtz utzi gintuzten haurtzaroan. Horregatik egiten zait beharrezkoa nire tradizioaren ezagutza, horrela bakarrik zorrotzuko baitut nire trepeta literarioa. Horrek ez dit, ordea, nire zereginaren beharra ezkututzen: albokoek zer egiten duten begiratu, eta aurrera egiteko naiz katea luze baten katanbegi.

Literatur tradizio oro apokrifoa da (baina ez iruzurra), eta giza errealitatearen interpretapen desberdinen biltoki da mendez mende eraiki den jauregi literarioa.

Eta hor, jauregi literatio eder horretan, neuk ere, ahal dudantxoan, literatura erantsi nahi nioke literaturari.